

Or piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 68. alea 2003ko apirilaren 30a

*bertso saioak, errosarioa,
trikitixa, musika mexikarra,
herrietako albistegiak, kultura
elkarrizketak, zorion agurrak,
herri kirolak...*



**Arrate Irratia;
euskaal irrati txiki
eta berezi baten
historia luzea**



**Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean**

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

Iragarlearen txokoan: Gila taberna

Errebal kalea, 15 Telefona 943 75 18 34

“ Ostiraletan lehen baino jente gutxiago ibiltzen da, larunbatetan giro politta. Nik uste dot herri txiki baterako oso giro ona daguala ”

Noiz hartu zenduan tabernian arduria?

Oindala 3 bat urte.

Zenbat pertsonak lan egiten dozue tabernan?



5 pertsonak, Mada, Nerea, Olatz, Aratz eta nik (Ana Losada).

Zein da tabernako lanaren alderdirik onena?

Jente asko ezagutzen dala eta berba egiteko aukeria izaten dala. Eta alderdirik txarreana? Ixterako orduan egoten da jentia. Txarreana izaten da ixterakuan jentia bialtzen ibiltzia.



Lagun kuadrila Gilan, kafetxoarekin domekako biharamuna goxatzen.

Zela ikusten dozu plaentxiako taberna girua?

Pixkat baju dago. Ostiraletan jente gutxiago ibiltzen lehen baino. Larunbatetan giro politta egoten da. Astegunian be jente mordoxkia ibiltzen da. Herri txiki baterako oso ondo daguala uste dot.

Zer dauka berezixa Gilak?

Ni ahal doten onduen lana egiten saiatzen naiz. Hortik aurrerakua bezeruak esan biharko dabe.

Telegrapak

Aitortu dittuzue pekatuak?. Stop. egin bai mordo bat, ezta?. Stop. igual bikotiarekin bizi zarete. Stop. ezkondu barik. Stop. pekatariak!. Stop. bikoterik topau ezina bai dala pekatua. Stop. penitentzia bai behintzat!. Stop. gainontzian ondo?. Stop. oporretik oporrera. Stop. baina laster amaituko dira oporrak. Stop. eta zer? . Stop. Arrate Irratia piztu eta kitto!. Stop. beste alaitasun batekin ibiliko zara. Stop. eta hau ez da publizitate subliminala. Stop. gu ez gara alderdi politikoak. Stop. ez dogu dominatzen holako teknikarik. Stop. politikuekin berriz kontu haundixa izan. Stop. horrek ardi narruz ibiltzen dira. Stop. listo itxuran. Stop. begiratu ondo. Stop. eta aukeratu onena. Stop. politikaz aparte be badago zer esana. Stop. futbola esaterako. Stop. bateko peña. Stop. besteko 25. urteurrena. Stop. eta atletik eta realzalien arteko partiduak. Stop. ez pentsa. Stop. enteratuta gare baina gauza bakoitza bere sasoiari. Stop. keixak udaberriari eta intxaurrak udazkenari. Stop. aurretik artifizial xamar gelditzen da. Ah! badakizue?. Stop. badator Egunkariaren proiektu berria!. Stop. horren berri hurrengo alean. Stop. bitartean erosi egunero Egunero!. Stop. Bisca Egunkaria eta Erreala!

Zuzen ete goiaz?

MIKEL SANTIAGO

Kafetegi batean nago. Bakarrik. Kafe bat eskatu dot, eta zain naguan bitartian, zigarro bat piztu dot. Noizian behin komeni izaten da, geldialditxo bat egin, eguneroko erritmo zoruetatik urten, eta inguruari begirada bat emotia. Askotan, konturatu be ez gara egiten, aurrera goiaz, geldi garen, ala norabide barik gabizen atzera eta aurrera.

Euskal Herrixa euskalduna lortzia helburu dakagunok asko gara, eta nahiz eta leku desberdinetan, bide desberdinetatik lanian jardun, helburu bakar horrek azkenian batu eitten gaitu, nahi ta nahi ez, izan be, gaur egun euskeriak bizi daben egoeriak, ez dosku beste biderik lagatzen.

Eta, Euskal Herrixa euskalduntzeko bidian (Plaentxia irakurri leike, Euskal Herrixa bihariari) ondo goiaz, aurrera goiaz?

“Aquí tienes el café” entzun dot, eta momentuan “gracias” urten jata automatikoki.

Zertan nebilen? A bai, ondo ete gabizen, euskeraz bizi nahi dogunok, euskalduntze bidian. Nagusiki erdeldunak diren lekuetan bizitzia tokau jakun askori, belarriari seigarren zentzu bat garatu jaku, inguruan euskeraz berbetan daren ala ez somatzen dabena. Baina, ez da zentzu estatistiko bat, izan be, egun batzuk eguzkitsuak ikustera eroaten nau, baina beste batzuetan, dana lanbrotuta ikustera. Eta honen arabera, Plaentxiako egoeria hobetu egin da? Nik baietz esango neuke, orokorrian, eta zehaztasunetan sartu barik.

Euskeraz ez dakizan jendiak euskeraz ikasitari emon jako lehenasuna. Garrantzitsua da hori, zalantza barik, baina hain garrantzitsuak diran beste gai batzueri, eskeini dotsagu bihar

zan lana? Esate baterako, euskerian erabilpena, euskaldun kopuruarekin bat dator? Eta, erabiltzen dan euskerian maila, biharko leukiena da?

Danok ikusten dogu, belaunaldiz belaunaldi, euskerian aberastasuna pobretuz doiala. Baina, erderian eragina, inoiz baino nabarixagua dabil bihurtzen gauro egunian. Ez da hiztegixa bakarrik; esaldixen joskeria, aditzak...euskerazko esaldixen artian gaztelerazko esamolde osuak sartzia... gero eta hizkera traketsagua entzuten da jende askoren ahuan.

Euskerian erabilpena gora doiala iruditzen jata neri, eta hola agiri zan, Debarrenian, euskerian erabilpenaren inguruan egindako azkeneko azterketan. Baina, asko dago eitteko ondiokan.

Honetan, euskalgintzaren inguruko mugimenduak zer egin haundixa daka. Danok saiatu bihar dogu, euskeria geure ondare bihurtzen, hain bere sentitzen ez daben jendiak be, aurrera eitteko konpromisua hartu deixen. Eta horretarako, euskalgintzan diharduen mugimenduak zabala izan bihar dau, anitza, euskerian alde lan egin nahi daben guztiak bere lekua izan deixen.

Horrela lortuko da Euskal Herri mailan, Egunkaria moduko proiektu bateri jarraipena emotia, eta baita herri mailan, bestelako ekimen askori eutsi eta aurrera jarraitzia be.

“Zer eitten dok hemen bakarrik? Guaziak trago batzuk hartzera.” Entzun dot neure atzian. Nere hausnarketak amaittu dira momentuz. Zuzen ete gabiz?

Ondiokan kafe gustua ahuan dakatela, banoia aurrera, kafian mikatza gero eta gozuagua bihurtzen juango dan esperuan.

Erreportaia

“ Ni beti izan naiz irrati euskaldun eta txikien zalea. Emisora horrek xarma berezia euki dabe, zeozer berezia, barruraino sartzen dana. Emisorarekin bat egiten dozu. Ildo berezia da gurea. Nik uste dot emisora honek hutsune handia betetzen dauela. Emisora ezberdina da, ez hobia eta ezta txarragoa ere, bestelakoa.”



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte

Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorluze.

Telefona 943 75 13 04

comunidades.kzguenea.net/PilPileanKulturaElkarte/EU
pilpilean@euskalnet.net**Erredakzio burua:** Egoitz Unamuno**Erredaktoreak:** Gurutze Ariznabarreta, Enara Agirre, Eguzkine Aldazabal, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi, Eduardo Pombar, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.**Publizitatea:** Enara Agirre (943 75 13 04)**Logotia:** Jon Gabilondo
(943751304 tel.)**Banaketa:** Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.850 ale**Inprimategia:** Gertu Koop. **Azala:** Aitor Madrid**Diseinua eta Maketazioa:** Aitor Madrid**I.Z.K.-a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.

SORLUZEKO
UDALAEUSKO
JAURLARITZAGIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

Zorion agurrak



Iker Etxabe
Apirilaren 11a
4 urte
Zorionak txikito!!
Segi beti bezain
alai.
Muxu asko
etxekuen partetik.



Alfonso Chueca
Apirilaren 30a
Zorionak mutiko!!
Muxu haundi bat
Ane eta Anderren
partetik. Zure guraso
anai-arrebak.



Xabier Montero
Apirilaren 17a
Zorionak potxolo!!
Beti bezain maitakor
eta polita jarraitu.
Gurasoen partetik.

Estibaliz Deza
Maiatzaren 1a
Zorionak guapetona!!



Guru Ariz.
Apirilaren 30a
Zorionak guapetona!!
Noiz datoz hankago-
rrixak? Zain gare.
Pil-pileaneko jarrait-
zailien partetik..

Kuadrillakuen
partetik.



Zorionak Jon
Jarraitu hola alaixa izaten.
Muxu haundi bat.
Etxekuen partetik.

HERRI URRATSERA AUTOBUSA maiatzaren 11 igandea

Prezioa: 6 euro
Saltokiak: Gila, Gaztelupe eta
Arrano tabernetan.
Irteera ordua: 08:30ak Gilan
Itzulera ordua: 20:00 Xenperen
Solaruzeko Euskalgintza
(Pil-pilean, EHE eta AEK)

Maiatzaren 9an Odol-ematea ikastetxean

Ordua: 19:30etan
Odol Emaile Elkarte

PLAZATIK GAZTETXERA BERTSOLARI TXAPELKETA maiatzaren 9an ostirala

Lekua: Gaztetxea
Ordua: 20:30etan afaria
Sarrerak 6 eta 10 eurotan salgai.
Soraluzeko Gazteria eta Ibilixan
Ibilixan Bertso Eskola

hildakuak

Eloisa Maiztegi Arrizabalaga
ezkonduak
Migel Bedaio Aizpiri eta Ines
Gonzalez Luke

Merkatu Txikia

LAN ESKAINTZAK

* **Obra eta zerbitzuetako buru bat Bergarako Udalerako.**
* Rempartek auzolandegiak antolatu ditu 18 urtetik gorako gazteentzat. Monumentu moten eta hauen zaharberritzea. Epea: ekainak 16 (Argide gehiago jasotzeko deitu 943741461 telefonoan)

BESTELAKOAK

* **Etxebizitza salgai Sagar Errekan.** Bi logela, komun bat, egongela bar, eta sukalde eraberritua. Deitu: 657 708 195 / 943 75 18 67
* **Bañares (Errioxan)** Kanpinean dagoen "mobil-home" delako bat salgai. Bi logela, komuna eta egongela, sukalde eta trastelekudun abantzea. 686206394
* **Bizikleta salgai.** Urte bi ditu. Gutxi erabilia. Aluminiozkoa. Esekidura (suspentsiboa) Shimano Alivio balaztak. 120 euro 652730853
* **Trikitorako akordeoia salgai.** Deitu 20:00etatik 22:00etara 652769038
* **Karro-denda salgai.** Sango modeloa. Muntatzeko erraza 615705990
* **Solariuma salgai.** Bertikala da. GOpurutzerako 28 lanpara eta aurpegi-rako bat. 669426400
* **Karabana salgai,** Escala 490 markakoa. Gehigarriekin. 657725447

Irrati Lehiaketa antolatu du Elgoibar ikastolak

Iragarki ordaindua

bailarako gazteentzat

Elgoibar ikastolak irrati lehiaketa antolatu du, bailarako gazteentzat. Lehiaketan parte hartzen dutenen artean sari ezberdinak banatuko dituzte.

- Irrati lehiaketa antolatu duzue. Zelakoa da?

Bailarako gazteentzat pentsatuta dago, 12-16 urte bitartekoentzat. Bikoteka elkartu behar dute eta bikote bakoitzak 15 minutuko irratsaioa prestatu beharko du.

- Zein helburuekin antolatu duzue lehiaketa?

Oro har, ahozko adierazpena lantzeko, batez ere euskararen ahozkotetasuna bultzatzeko, gaztelaraz eta ingelesez ondo hitz egiteko aukerari uko egin gabe. Gainera, bailarako gazteen protagonismoa indartzea nahi dugu.

- Elgoibar Ikastolak garatutako ekintza, baina, bailarara zabaldu nahi izan duzue. Zergatik?

Bailara errealitate bat da. Gaur egun oso mobilitate handia dago, bailarak hiri handi baten ezaugarriak ditu. Horregatik, bailarako gazteen arteko harremanak euskararekin zerikusia daukan ekintza onuragarri baten inguruan indartzea positiboa dela uste dugu.

- Azken batean, hori bat dator ikastolaren helburuekin...

Ikastolak euskal nortasuna sustatzeko hezkuntza eguneratua eskaini behar du kooperazio proiektu batean.

- Zer esan nahi du hezkuntza eguneratuak?

Herriaren beharrak kontutan hartuz, hezkuntza eskaintzak eboluzionatu egin

du: orain Haurtzaindegia, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa dira ikastolaren etapak. Hau da, 0tik 18 urterarte hezkuntza etapak. Horrez gain, ikastolak proiektu aurreratuak eskaintzen ditu: IKT ikastola pilotu, eleaniztasunean aintzindari...

- Elgoibar ikastola aukeratzen duen norbaitek zein ezberdintasun aurki ditzake bertan?

Ikastola izanik, euskeraz ikasteko aukeraz gain ikasleak ingeles maila altua hartzeko aukera dauka. Ikastola oso handia ez denez, ikaslearen izakera aintzakotzat hartuko duen ikastola aurkituko du, orientazio zerbitzu pertsonalizatuarekin, irakasle gazteekin, giro ezberdinarekin eta lagun berriak topatzeko aukera izango du.



Zer irizten dotsazu?

Gaurko gizartean komunikabideek duten garrantziaz berba egiten da sarritan. Telebista da egunotan komunikabide indartsuena baina irratiak ere bizirik dirau.

Badaukazu irratiya entzuteko ohiturarik? ze emisora entzuten dozu normalian?



Iñaki Arribillaga
13 urte
Ikaslia
Telebista gehixao ikusten dot, baina irratiya be entzuten dot. normalian muskia entzuten dot, bain saio edo elkarrizketa interesgarri bat baldin badao, haura entzuten dot.



Mirari Oregi
37 urte
langabezian
Egixa esateko ez dot irrati-rik entzuten, ezta telebista-rik ikusi be. Eztakat astirik eta.



Maria Arantzazu Argarate
81 urte
Etxekoandrea
Bai, entzuten dot irratiya. loiola irratiya entzuten dot, horretara ohittu naiz eta ez naiz emisoraz aldatzen ibiltzen.



Eneko Berraondo
15 urte
Ikaslia
Normalian telebista ikusten dot ta irratiya tarteka tarteka, gutxitan. irratiya entzuten dotenian herri irratiya entzuten dot.



Jose Mari Soraluze
45 urte
Muntatzaile mekanikoa
Gustatzen jata irratiya entzutia. arrate irratiyan sintonixia da gehixen gustatzen jatana, baina euskarazko beste emisorak be entzuten dittut.



Ikerne Laskurain
16 urte
Ikaslia
Irratiya gutxitxan entzuten dot, kotxian noianian batez be. euskadi gaztea entzuten dot, eztakat beste sintonixak entzuteko ohiturarik.



Barra kargadore automatikoak
eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5

Tfnoa 943 75 18 91

Faxa 943 75 24 58

E - maila: etxehun@teletel.es

etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE

Gipuzkoa

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!



Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

Bidegorria egingo da Bergararte



Apirilaren 10ean egindako ez-ohiko Udalbatzarrean onartu zen Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Bergararte Udalarekin hitzarmena sinatzea, Bergararte Soraluzera bitarteko trenbide zatia bidegorri moduan egokitzeko. Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuak egindako Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sarean, interes estrategiko handienetako ibilbidetzat

jotzen da bide zati hau, "Maltzagaraino jarraipena ematen bazaio, Debako bizikletari trafikoaren zati handi bat antolatzeaz gain Debagoiena eta Debabarrena lotu ditzakeelako". Era berean, bidegorria ibilbidean zehar aurrikusita dauden eraikitze lan eta egitasmoekin (berezi zehazten da tranbia) erabat bateragarria dela aipatzen da hitzarmenean. Hitzarmenak, 2004 eta 2005eko aurrekontuetan bidegorria herri barneraino egokitzeko beharrezko den adinako diru kopurua aurrikustera behartzen ditu bi Udalak. Bidegorria egokitzeko lanek 868.519 euroko aurrekontua izango dute eta aldundia egingo da herrien arteko zatiari dagokionaren kargu..

Obren lehen fasea, Osintxutik Soraluzera bitarteko 2.360 mko bide-zatiari dagokiona izango da eta 366.732 euroko aurrekontua izango du.

Hondasun megalitiarra aztergai

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Udalera igorritako idatzi baten bitartez jakinarazi duenez, Gipuzkoako Ereku Megalitiarraren inguruan hasitako expedienteak, ikusgai daude interesatuak

dauden herritar guztiendako. Expediente hauen bitartez, Gipuzkoako Ereku Megalitiar bakoitza Hondasun Kultural izendatzeko, Monumentu Multzo kategoria aitortuz.

KZ-Gunean ikastaroak aukeran

Soraluzeko KZ-Guneak, arratsaldez bakarrik bada ere, ikastaro eta informatika alorreko zerbitzuak eskeintzen jarraitzen du. Ikasle kopuruen aldetik helburu gehienak beteta izan arren oraindik ere ikastaro aukera zabala eskeintzen da: interneteko oinarrizko ezagutza, aplikazioen ezagupena eta abar. Informazio Teknologietan gaitua dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria ateratzeko aukera ere badago: IT Txartela. Gazte txartela ere atera daiteke.



Ezoziko bideko bidegurutzean arriskua



Izartu Planaren barruan Estazioa eta Ezoz Bidea lotzen diren bidegurutzean ikusgaitasun faltaren ondorioz zegoen arriskua salatuz hainbat dei jaso dira Udalean. Udalak ikusgaitasuna erreztan duten bi espilu ezarri ditu baina oraindik ere gidari askok guneak arriskutsu izaten jarraitzen duela jakinarazi digute.

Zaharren Egoitzara igogailua laster

Hilaren 14an onartu zuen Udalak Atxuritik Zaharren Egoitzarako igogailua jartzeko 65.298,50 euroko aurrekontua. Contrucciones Galdiano izango da lanen ardura izango duen enpresa eta uda aurretik igogailua martxan izatea aurrikusten da.

Antena 3 28. katean ikusten da orain

Telebisten emisioak zabaltzeko ardura duen Retevision komunikazio etxeak jakinarazi duenez, apirilean zehar Antena 3 telebista katea, orainartean ikusten zen 63. katetik 28.era pasatuko da. Aldaketa honen arrazoiak, Oiz mendiko antenaren eta Karakatekoaren arteko interferentziak omen dira. Señalea San Andresko antenatik jasotzen dutenek Karakatera begira jarri beharko dute eta horrela ere ikusten ez dutenentzako seinale hartzaile hobe jarri beharko dute.

 **PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

Juan Mari
Arraindegia

Eguneroko
arraina
eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnua 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69



Alderdi politikoeak osatu dituzte hauteskundetarako zerrendak

Datozen hauteskunderetan 3.582 soraluzetarrek izango dute botua emateko aukera, horietatik 73 atzerri-tarrak eta atzerrian bizi direnak izango dira.

Herrian 4 hautagai-zerrenda aurkeztuko dira. Dagoeneko osatu dituzte zerrendak eta orain bakoitzak bere programa zabaltzeko lanari ekingo dio buru-belarri.

Askatasun Haizeak platafor- ma lehen aldiz aurkeztuko da



Askatasun Haizeak plataformak, “herri honetan bizi den salbuespen egoera ikusirik testigua hartu” eta hauteskunderetara aurkeztea erabaki du. “Ezkertiar eta euskaldun moduan lan egin eta Soraluzeri udaletxe partehartzaile eta zabal bat es-

keintzeko” helburuarekin. Jose Luis Arizaga izango da zerrenda burua, eta Monika Muro, Jose Agustin Moro, Unai Larreategi, Maite Etxeberria, Amaia Argarate eta Aitor Lasa datoz ondoren. Programa datozen egunotan kaleratuko dute.

EAJ-EA koalizioak ere osatu du hautagai zerrenda

EAJ-EA koalizioak osatu ditu hauteskunderetarako zerrendak. Aurreko legealdian banatuta joan baziren ere, oraingoan bat egin dute.

Alberto Sudupe (EAJ) izango da berriz ere alkategai aurkeztuko dena eta berearekin batera aurkeztuko dira lehenengo zazpi postuetan: Oskar Gabilondo (Independiente), Nerea Perez

(EA), Iker Aldazabal (Indep.), Mirari Olertza (EAJ), Maite Oregi (EA) eta Jose Luis Badiola (EA).

Koalizioak datozen egunotan egingo du aurkezpen ofiziala herrian, eta bertan emango dute legealdi berri-rako dituzten proposamen eta egitasmoen berri. Proposamen horiek biltzen dituen programa aurkeztuko dute.

PPk kanpoko jendea aurkeztuko du zerrendetan



Alderdi Popularrak apirilaren 15ean Kiroldegiko erakusketa aretoan egindako aurkezpenean, “Soraluzen askatasuna eta demokrazia defendatu” eta “denentzako” izango den politika bat bultzatuko duela adierazi zuen Francisco Javier Nuñez zerrendaburuak. Zerrendak, “egoera dela

eta” kanpoko jendea osatuak izango dira baina bere esanetan “herrikoak balira bezala lan egingo dute. Maria Isabel Melgosa, Rafael Mendizabal, Maria Isabel Olarte, Oscar Felipe De Torres, Maria Carmen Perez eta Isabel Consuelo izango dira bere ondoren datozenetako batzuk..

PSEE-EEen aurkezpena laster

Alderdi Sozialistak datorren asterako aurrikusten du bere zerrenden aurkezpena herrian eta bien bitartean izenik ez kaleratzea nahiago duela adierazi digu Soledad Del Bosque zerrenda buruak.

Posta bidezko botuak 15a aurretik

Edozein arrazoirengatik bere botua posta bidez eman behar duenak, maiatzaren 15a baino lehen egin beharko du eskaera postetxean. Eskaera egin eta egun batzuetara jasoko ditu bozka-paperak.

گازتېلۇپې تېبىرنا

GAZTELUPE
taberna

tel: 943 75 20 81

گازتېلۇپې تېبىرنا

IÑAKI
IÑARRA

HARATEGI ETA
URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze

Arrate: irrati txiki eta berezia

Goizeko 9.00etan piztu dugu irrati FMko 93.6an. Mutrikuko mezaren ostean, Urbiako aterpetxeko nagusi gaztearen eta Bernardo, esatari "potolo"aren arteko adar jotze saio entzun dugu. Ondoren trikitixa eta txistu doinuak jarri dituzte 80 urteko agurea ere dantzan jartzeko modukoak. Matxinbentako jaietako arduraduna elkarrizketatu ostean, Ziriakok azoka ezberdinetako barazkien prezioak esateari ere dagokion morboa ematen dio. Soralezeko kronika askea eta gaztea etorri da gero. Bazkalostean mexikanak jarri dituzte lehenengo eta dozenaka zorion agur banatu gero. Arratsaldean hango eta hemengo kultur ekimenen berri eman dute. Iluntzean errosarioa jo eta sua, azken txapan, bertso saioa eta herri kirolak Ziriako nekaezinaren eskutik. Amaitu aurretik, Bernardoren agurra, Gernikako Arbola, Arrateko Ama eta Agur Jauna. Horrela entzuten dugu Arrate Irratia etxetik, eta halakoxea da barrutik ere; txikia, atsegina, hurbila, euskalduna, euskararekin eta euskal kulturarekin konprometitua, lasaia eta batez ere "alai" a, irratiaren jaso zuten txakur zaharraren izenaren moduan.

Gaur egun, bost lagunek lan egiten dute Arraten: Bernardo, Elena, Asier, Nekane eta Agurtzanek. Bernardo da urte gehien daramatzana eta ezagunena ere bai eta berarekin izan gara Arrate Irratiaren inguruko kontuak ahotan hartuta.

Noiz hasi zan emititzen Arrate?

1959ko abenduaren 23an emititu eban lehenengo aldiz. Eliza aldetik frekuentzia jarri eban Eibarren eta Don Pedro abadea oso irrati zalea zanez irrati zabaltzea lortu eban. Orduan sakristian egoan estudioa. 1964ko maiatzean 5ean edo, etorri zan Madrilgo jendia emisora ixtera. Orduan izugarritzko arrakasta zeukan euskaldun jendearen artean. Ni orduan Bilbon bizi nintzen eta euskeraz ere ez nekien. Durangora etorri nintzean eta Arrate entzun nebanean, txistua eta trikitixa eta... ikaragarria izan zan neretako. Hamalau urte geroago, 1978an zabaldu zan berriro. Ni hasita nengoan Bilbon euskara ikasten eta behin Arratera etorri nintzan Don Pedrori elkarrizketa bat egiteko aitzakiarekin. Orduan aurrera etortzen hasi nintzan eta 1978an



Bernardo Ibarra oso ezaguna da Arrate Irratiko esatari moduan egiten duen lanagaitik.

"1978an pentsatu genduan beste biderik ez eguala eta prezintoak kendu eta hasi egin ginen emititzen"

pentsatu genduan beste biderik ez eguala eta prezintoak kendu eta hasi egin ginen. Lau hilebete egin eta goiz baten polizia etorri zan eta emisora itxi egin eben berriro. Beste lau urtean egon zan itxita. Handik lasterrera, berriro be, prezintoak kendu eta emititzen hasi ginen, eta gaur arte. Orduan be gorrotoa aukien euskaldunendako eta gaur be, horrelakoak gertatzen dira zoritxarrez.

Ze berezitasun dauka Arratek?

Lehenengo eta behin, dana euskeraz egiten da. Herrietako kronikak esaterako herri bakoitzeko euskeraz egiten dira. Beste berezitasun bat musika da: musika nahiko melodikoa da, musika orkestrala, musika klasikoa, mejiko aldekoa eta gure programazioko parterik handiena euskal musikak hartzen dau. Gainera entzuten dan musikaren %25 inguru, bertan grabatutako musika da, beste inon entzuten ez dana; trikitixa, txistua, bandetako musika...horrek ikutu berezia emoten deuta Arrateri. Eta apaltasuna.

Arrate Irratia ez da beste irrati batzuk bezelakoa.

Ni beti izan naiz irrati euskaldun eta txikiaren zalea. Emisora horrek xarma be-

rezia euki dabe, zeozer berezia, barruraino sartzen dana. Emisorekin bat egiten dozu. Ildo berezia da gurea. Nik uste dot emisora honek hutsune handia betetzen dauela. Emisora ezberdina da, ez hobea eta ezta txarragoa ere, bestelakoa. Badagoz hamaika emisora danak gauza bera egiten dabenak; magazinak politikaz, jendeari burua berotzeko eta gainera hizlariak jangoikoa balira bezela berba egiten dabe, gurean ez.

Irratigintza mundua asko aldatu da?

Gauza asko aldatu da. Gaur egungo albistegiak esaterako oso onak dira. Musika ere bai baina beti azken azkenengo musika jartzen da. Lehen disko batetik bestera 5 segunduko ixilunea egitearren ez zan ezer pasatzen, gaur egun dana izan behar da perfektoa. Beste arazo bat da: Espainiako komunikabide larregi dagoela hemen eta txarragoa dana, hemengo irrati asko eta asko eurei saldu dizkietela. Guk hori egin baino lehenago nahiago dogu ateak itxi eta etxera joan.

Informazioa batzeko zela moldatzen zarete?

Garrantzitsua da jakitzea bakoitzaren mugak nun dagozen. Guk informatibo nagusiak Euskadi Irratiarekin bat eginda emoten ditugu. Zertan hasiko gara gu, indar gutxiago izango daben informatibo batean indarrak gastatzen. Guk herri giroko informazioa lantzen dogu. Informazioa normalean he-

rrietatik bidaltzen doskue.

Ze lan ordutegi daukazue?

Langileak zortzi ordu egiten dabez. Ni goizeko zortziretan sartu eta gabeko hamarrek arte egoten naiz. Jai eta aste. Ahal dudanean eskapadatxo bat egiten dot mendira baina bestela hemen edo kalean ibiltzen naiz azokaren baten edo propaganda bila edo. Neretzako Arrate izan da bizitzako ilusiñua eta halaxe izaten jarraitzen dau. Eta nik uste dot hori antenatik transmitidu egiten dala.

Berezitasun horrek entzulego murriztagua dakar ezta?

Guk ez dakigu zenbat entzule daukaguzen, sekula ez dogu egin enkuetarik, nahiago dogu diru hori magnetofoi baten gastatzea. Baina ikusten da, deiak, bisitak jendearen komentarioak, asko, animo asko jasotzen dogu. Oin, hemendik hogeiterra zer gertatuko dan? ez dakit. Baina ni gero eta seguruago nago bide honetatik badagoala aurrera egiteko aukera. Nik Euskal Herrian ikusten dot arazo orokor bat asko kezkatzen nabena. Gaurko umeak eta ez hain umeak telebistan sartuta datoz, eta telebistan zoritxarrez kanpoko gauza ikusten da ia dena. Eta eta ume horrek amari esaten deutso – jode ama, oin be trikitixa hori entzuten zagoz?-. Etxekoa mesprezatzen badogu, jai daukagu. Euskaldun askok konplejoa daukie. Herri batera iragarle bila joan eta esatea: "bai baina zuek dana euskeraz egiten dozue! Erderaz danak ulertzen dabe!" euskaldun batek esanda. Zer esan behar deusazu hari ? Hemen jangokua dirua da.

Zela ikusten dozu euskararen osasuna eta euskal kulturarena?

Euskeraz jakin gehiago jakingo da baina erabili gero eta gutxiago egiten da. Ikastolak horrenbeste urtean, komunikabideak eta hainbeste gauza egin da baina aurrera beharrean atzera goaz, jende askok folklore hutsagaitik bakarrik egiten



ARRATE IRRATIA

**asteartero
12:40an**

Soraluzeko berriak zure etxean.

Pil-pileanen eskutik.

“ Ia egunero deiren bat jasotzen dogu eskerrak emoteko eta horrek balio dau nomina osoa baino gehiago ”

dau euskeraz. Alperrik esango dabe kontrakoa, neure begiekin ikusten dot eta. Ez dago euskal kontzientziarik eta bihotzik, hori argi eta garbi. Euskal kultura ez dot horren gaizki ikusten. Batzuetan harritu egiten naiz, gauza handiak egiten dira-eta.

Erljiioak tarte haundixa dauka Arraten. Horrek badauka bere azalpena. Arrate Irratia Don Pedrok sortu eban. Hasieran helburua, irriatiaren bidez basarritarrei eta arrantzaleei erlijio kontuak hurbiltzea zan, basarri askotan erdi isolatuta egozan eta abar. Gaur be, Arrate Irratia izaten jarraitzen dau eta erabakita daukagu gure jokabidea, apurtxo bat sinismaren aldekoa izango dala. Badago jende asko eta asko horren zalea dana eta horrek be merezi dabe toki bat. Horrek inori ez dautzo kalterik egiten, nahi dabanak entzungo dau eta nahi ez dabanak ez.

Ze alde on dauka holako irratian lan egitiak? Irratigintzan ikasteko tokirik onenak holako irratia dira, hemen danetik egin bihar dozulako. Hemen alperrik da etortzea esaten, "nik informatiboak egin nahi ditut !", ez, ez, hemen informatiboak eta informatiboak

ez direnak, dana egiten dogu danon artean: diskoak, alkarrizketak, lehiaketak, kirolak eta errosarioa eman ere bai, eman behar bada.

Sentimentu aldetik. Irratiaren bidez lagun mordoa egiten da eta asko bene benetakoak. Ezin da sinistu irratia ze indar daukan. Sasoi baten igandero ehun lagun inguru etorri izan dira bisitan eta oindio be etortzen dira. Eta ez hori bakarrik, ia egunero deiren bat jasotzen dogu eskerrak emoteko. Horrek balio dau nomina osoa baino gehiago, horrek emoten deusuz indarrak hurrengo egunean jarraitzeko. Neretzako hori oso gauza ederra da. Medio handi batean bat gehiago zara.

Eta alde txarra? Aberiaren bat gertatu danean eta gure frekuentziaren ondoan Radio Nacionalek beste emisio bat jarri ebanean-eta. Gero antena hau kendu eta berri bat jartzekotan be ibili ginen emisioa Euskal Herri osoan entzun zedin baina ezinezkoa izan zan eta orduan ere min haundia hartu genduan. Oin be herrialde gehienetan entzuten da baina antena aldatu balitz Euskal Herri osoan entzungo zan.

Eta anekdotak? Asko. Edurra danean, urtero hemen egiten dot lo. Oin urte eta erdi, tximistak jo eta astebete egon ginan ixilik. Ekaitza datorrenean oso toki txarra da hau.

Ziriakoren ordezkorik izango da?

Hori da gure kezka. Herri kirolak emoteko "numero uno". Bera mobitzen da, berak ikusi eta berak emoten dau kronika. Eta ez badao, telefonoz deitzen dau eta informazioa zuzenian hartzen dau. Okertzen bada, bera okertuko da.

Aurrera begira zer?

Gaizki dagoena konpondu eta gauza barriak eginez jarraituko dogu. Geure bidetik, geure entzuleendako, euskeraz.



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE

Mendata taberna



Berezitasunak:
Txipiroiak, Barazki
Menestra, Gixauak...
Asteburuan plater
konbinatuak
Enkarguak etxerako
(bazkariak eta afariak)
Kalebarren, 5
Tfnoa 943 75 13 87

“Plazatik Gaztetzera” bertso saioa

Datorren maiatzaren 9an, gaueko 22:30etan, Plazatik Gaztetzera Bertsolari Txapelketaren lehen kanporaketa jokatu da Soraluzeko Gaztetzearan. Bertso saioan: Peru Magadalena, Mikel Arrillaga, Joseba Otaegi, Iñigo Arrizabalaga eta Eneko Abasolo bertsolarien kantatuko dute, Ainhoa Zubizarreta "Txanbua" gai-jartzailearen gidaritzapean. Saioaren aurretik afaria izango da Gaztetzearan bertan eta dagoeneko salgai daude afarirako sarrerak

(10 €). Txapelketa hau joan zen urtean antolatu zuten lehen aldiz Elgoibar, Deba, Mendaro eta Mutrikuko Gaztetzearan eta aurten Soraluzek hartu dio lekua Mendarori. Soraluzeko lehenengo kanporaketa izango da, 16an Deban, 23an Elgoibar, 31an Finala Mutrikun jokatu da.

Saioko txapelketa finalera igaroko da, gainontzekoak beste herrietako kanporaketetako puntuazioen arabera sailkatuko dira.

Kirmen Uriberen poesia emanaldia

Datorren maiatzaren 16an, Kirmen Uriberak “Bitartean heldu eskutik” deitutako poesia liburuaren irakurketa eskeiniko du Soraluzen. Emanaldia arratsaldeko 22:30etan izango da Kiroldegiko erakusketa aretoan eta sarreara dohainik izango da. Poesia emanaldia Pil-pilean Kultura Elkarteak eta Euskararen Aholku Batzordeak antolatu dute Udalaren laguntzarekin, Euskara Elkartearen Topagunearan Kultura Errota egitasmoaren bitartez..



“Berbeta berua” liburua kalean



Debabarreneko Badihardugu elkarteak egin duen Berbeta Berua liburua

kalean da dagoeneko. Alberto Telleria elgetarrak osatutako liburuak euskarak dituen *berbeta bero* edo *gazte-berbeta* ko esaera eta berbak batzen ditu. Bilduma honek euskaraz hizkera informalean antzematen den adierazkortasun hutsunean betetzen lagundu nahi du. Hona hemen bertan azaltzen diren berba eta esamoldeetako batzuk: *Belunabua*, *euki kapaua*, *odolbakua* gatz gutxiko pertsona, *ipurlokia*, *kakapirrixa* leku batean geldirik egon ezin dena, *monstrongonia* kopeta iluna izaten duena, *zopa saldia emon* egurtu, *seitterdie-tan egon* zakila ez tentetu, gorringo biko arrautzak euki pertsona adoretua.

Irukurutzeta eguna domeka honetan

Urtero moduan, datorren domekan (maiatzeko lehenengo domekan) ospatuko da Irukurutzeta Eguna. Egunari hasiera emateko 11.00etan meza izango da Pago Bedeinkatun eta ondoren salda eta txorizoa banatuko zaie bertaraten diren guztiei. Umore ederrean, 13.30 inguruan Irukurutzetarako tontorrerako biderei ekingo zaio eta bertan egingo dute bazkari-legea (bakoitzak berea). Bazkalostean erromeria izango da Zarautzar trikitalariekin. Erromeri egunaren antolatzaileak (Atsedean Txaboleta eta Osintxuko Txurrumilo K.T.) ohartarazi dutenez, eguraldi txarra bada, Meza Atsedean txabolan egingo da.

Euskara ikasleendako familiak behar dira

Azken urteotan Eusko Jaurlaritzaren HABE erakundeak Egonaldiak familia euskaldunetan izeneko ekimena antolatu du. Ekimenaren helburua, euskara inguru euskaldun batean praktikatzea eta bertako bizimodu eta kultura gertutik ezagutu nahi duten pertsona helduei familia euskaldun batean hila-beteko egonaldiak eskaintzea. Ikasleak 18 eta 45 urte bitartekoak izango dira eta egonaldia eskeintzen den hilabetean etxean, gutxienez, hiru lagunek bizi beharko dute. Familiak, honen truke, 550 euro jasoko du hilabetea. Izena emateko Udaleko Euskara Zerbitzura deitu behar da lehenbailen.

Zortzi amodiozko gutun lehian

Zortzi izan dira aurtengo Amodiozko Gutunen Lehiaketan parte hartu duten lehiakideak. Sari banaketa maiatzaren 30ean Ikastolako Frontoian egingo den IV.Kantu Afarian izango da.



Limpiezas
rejo, S.L.

Rekalde, 30 behea
Tel.: 943 75 25 57
Faxa: 943 75 25 56
20.590 SORALUZE

Limpiezas industriales

Telefonoa 75 24 09

ARRANO
tabernia

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA ENILATUAK

etxera

Maiatzaren bata

“Aurtengo maiatzan bata oso ezberdina izango da”

Maiatzaren Ieko aldarrikapen eguna ate joka dugula, Ramon Garzia eta Karlos Jauregi LABeko ordezkariekin egin dugu hitzordua. Sindikatu, langile, enpresari, egoera ekonomiko, eskaera eta beste hainbat konturen inguruan egin dugu berba.

Zein dira lan munduari dagokixonez, azken urtietako kezkarik nagusi-zenak?

Parua eta kontratu prekarixuak. Kontrato prekarixo honek ekartzen ditue atzetik beste arazo danak. Oin enpresa osuak dare pertsonal finkorik bare. Hori Espainiatik etorri da. Orduak murriztuz 35 ordura heltzeko asmua be hor dago baina aurtan be metaleko hitzarmena kolokan dago ez dakigu ze gertatuko dan.

Sindikatuaren arteko harremanak zela dare?

Gaur egun, argi dago Euskal Herrian zeozer egiteko batu egin bihar dogula. ELA eta LAB puntu batzuetan ados dare eta alkartu egin dira aurrera begira jarrera bateratu bat izateko.

Eta alderdi estatalistekin?

Gero eta okerrago. UGT eta CCOO gobernuan txontxongilo batzuk dira, gobernuak mantentzen ditualako. Hemengo ekimen danak boikoteatzen dabiz. Hobetuz-en kasuan be, hemengo langiliok formaziñorako emoten dogun lautik bat bakarrik etortzen da bueltan Madrildik, eta hori UGT eta CCOO babesten dabe dirua banatzeko arduria daukan Forcen erakundiaren barruan. Kompetentziarik ez daukagu eta beti euren mendian ibili bihar dogu. Jentia konturatzen da horrekin eta Euskal Herrian gero eta indar gutxiago dauke.

Sindikatuak zer moduz dare osasunez?

LABen behintzat afiliaziño aldetik



Ramon Garzia eta Karlos Jauregi LAB sindikatuak Ezozi Bidean duen lokalean.

“UGT eta CCOO gobernuan txontxongilo batzuk dira, gobernuak mantentzen dittuelako”

goruntz goiaz jarrittako helburuak be-tiaz poliki poliki. Delegatu aldetik be jente gaztiak hartzen ditu ardurak eta gustora gare.

Eta langilien mobilizazio ahalmen aldetik?

Kasuaren arabera. Metalan greban esaterako, Gipuzkuan hitzarmena lortzeko jente askok dihardu mobitzen. Kasu txixixaguetan lantegi bakoitza mundu bat da baina sindikatuak beti laguntzen dabe. Orokorrian egixa da mentalitate oindala 20 urte baino kontzientzia eta elkartasun gutxiago daguala langilien artian.

Azken urtietan orokorrian langilien egoeriak ze garapen izan dau?

Hobera egin dau. Zorionez, azkenengo 6-7 urtietan gorakada ekonomiko

haundixa izan da eta orokorrian langilien egoeriak hobera egin dau soldata aldetik. Dana dala, aberastasun banaketia ez da enpresen irabazixen ainakua izan.

Etorkizuna zelakua arrikusten do-zue?

Nahikua beltza. Kompetentziarik bari-rik eta Toledoko Paktua martxan jarrita-kuan egoeriak txarrera egingo dau. Pentsinuak esaterako lan-bizitza osoko batzbestekuak izango dira. Hori gobernuak eta sindikatu estatalistak sinatu dabe. Espainian ez da ikusten lan munduan inungo borrokarik.

Maiatzan Iian zer?

Aurtengo maiatzan bata oso ezberdina izango da. Aurtan, lan arloko eskari zehatzak baino politikuak hartu dabe indarra. Demokrazia, Justizia, Autodeterminazioa izango dira aldarrikapenak, Egunkariarenganako elkartasuna be adieraziko da, bizi dogun egoeriak horixe eskatzen dabela uste dogu bi sindikatuok eta euskal marko politiko eta ekonomiko baten alde egingo dogu.

JAVIER ALONSO ZELAIETA
434 ZENB.KDL

**HORTZ
KLINIKA**
MEDIKU ESTOMATOLOGO

ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

VIDAL
frutadenda

**Etxaburueta 2
Tel. 943752055**

Pelota

Pelota txapelketa hastear

Soraluzeko afizionatuen pelota txapelketa

Asteartean egin zen Gaztetxean aurten-go pelota txapelketako batzarra. Aurten ere 60 lagunetik gora izango dira parte-hartzaileak. Maiatzaren 10etik aurrera hasiko dira partiduak jokatzeko, larunbatero San Andresen.

Usurbilgo Txapelketa

Joan zen larunbatean Jon Arrieta Usurbilgo Txapelketatik kanpo gelditu da, Aranzetarekin batera Zapirain eta Sorrairekin aurka 22 eta 12 galdu ostean.

San Prudentzio Jaietan

Joan zen igandean Arrieta eta Aranzetak, Jauregi eta Muguruzaren aurka 22 eta 18 irabazi zuen.

Aita-semeen Arteko Txapelketa

Apirilaren Mikel Alberdi eta Zigor



Alberdik lortu zuten garaipena, 22 eta 15 eko emaitzaz Mikel Ostolaza eta Anjel Ostolazak osatutako bikotea menperatu eta gero. Mafre eta Benito Alzariak emandako garaikurrak jaso zituzten txapelkunek.

Lau t'erdiko ETB Kantxa Txapelketa

Joan zen larunbatean jokatu ziren Kiroldegiko frontoian ETB Kantxa Txapelketako partiduak.

Futbola

Errealeko peñaren aurkezpena maiatzaren 19an

Soraluzen osatu berri den errealeko peñak afari batekin ospatuko du bere aurkezpena, afaria maiatzaren 19-an egingo da eta bertara errealeko jokalariek etorriko dira. Peñako zuzendaritzakoak oso pozik aurkitzen dira laister peñak bere aurkezpena egingo duelako herriaren aurrean eta batez ere ehun bat bazkide izatera iritsi direlako.

Kirola Euskaraz

Kopakoa finala apirilaren 3-an.

Infantil mailako neska mutikoak Eibarren ospatzen den kopa txapelketako finala jokatzeko sailkatu dira. Merezitako lorpena izan da denboraldian zehar joko ona egin bait dute. Finalerako sailkatzeko egun batean 10 minututako 5 partidu jokatu behar izan zituzten hauetatik 4 irabazi eta 1 berdindu zizutzelarik. Finala La Salle-ren aurka jokatu dute apirilaren 3-an Unbeko futbol zelaian. Animatu eta joan neska mutiko hauek ikustera eta ea denon artean Eibartarrek antolatutako txapelketa hau Soraluzera ekartzea lortzen dugun.

Oharra: Ordua oraindik ez da zehaztu.

Bolo Txapelketa

Barela elgoibartarra lehenengoa



Joan zen larunbatean jokatu zen Ezozin, Gipuzkoako Bola Txapelketako azkenaurreko kanporaketa. 50 bat bolari batu ziren Ezoziko bolatoki ingurura eta eguraldi eguzkitsuarekin arratsalde pasa ederra egin zuten bolatokian.

Honela gelditu zen sailkapena: 1. Jose Mari Diez (Asolaberri taldekoa) 7 txirlorekin. 2. Sabin Arriaga (librekoa) 6rekin, 3. Mikel Urkia (Asolaberri) 6rekin, 4. Juan Luis Rodriguez (Asolaberri) 5ekin, 5. Unai Loiola (San Migel) 5ekin eta 6. Bittor Ugarteburu (Asolaberri) 5ekin.

Soraluzetarrek ez zuten suerterik izan, ez San Andresko taldekoek eta ezta Ezozikoek ere.

Mendi taldea

Mendi irteera

Oketara

Datorren maiatzaren 9an mendi irteera egingo da Oketa mendira. 1.031 Metroko mendia da eta Etxaguen-Urtegi ingurutik igoko dute. Izena emateko mendi taldeko lokalean egin behar da asteen zehar 19:30etatik aurrera.

**TXOKO
KAFETEGIA**



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarriren 22 behean, telf: 943751780



**Kiru
Muntaiak**

Blas Elizburu Kortabarria

Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Errekaldia, 30
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 670 05 18 20

Irune Odriozola

Matematikak asko gustatzen jataz.

Aste Santuak heldu dira Soraluzera eta batek baino gehixaok kanpora alde egin dau egun batzuk pasatzera. Pil-pileanien oporrik ez daukagunez, kalera urten dogu eta Plaza Barrixan egin dogu topo Iruneekin. Lagunartian gustora zeguala harra-patu dogu. Ikasle fina eta mendizalia, etorkizuneko enpresari bat daukagu gure artian.

Izen abizenak, adina eta lanbidia.

Irune Odriozola Agirre, 13 urte eta ikaslia

Animalixa, musika taldea, koloria eta tokixa.

Jirafia, Alaitz eta Maider, berdia eta mendixa.

Ikastolatik gehixen gustatzen jatzun ikasgaixa?

Matematikak asko gustatzen jataz.

Zelan gustatuko litzaizuke egotia hemendikan hamabost bat urtetara?

Enpresariales ikasita enpresa baten lanian egotia nahiko neuke.

Zer da zure aisialdi denboran egitia nahi izaten dozuna?

Jolastia eta familixiakin egotia.

Ta gustokuen dozun jolasa?

Saskibaloia.

Kanpora bidaiaren bat egiteko aukeria emongo balotsue oin, nora juango ziñake?

Jakara juango nintzake eskiatzera.

Eskiatzen badakizu?

Tira, pixkat.

Hiru desio eskatzeotan, zeintzuk?

Osasuna, bakia eta maitasuna.

Zure ustez zer falta jako Soraluzeri?

Jolas-areto bat, makina, futbolinak... dauzkana.

Telebistako saio bat.

Sinosuke.

Txisteren bat jakingo dozu, ezta?

Bada basarritar bat txarrixak zeuzkana eta Eusko Jaurlaritzakuak jua jakoz animalixeri jaten zer emoten dotsen galdetzera. Baserritarrak etxian jaten dabenan hondarrak emoten dotsezela: ehun mila pezetako multia. Hurrengo urtian berriro be agertu dira Eusko



Irune Odriozola

Bertso Begiz

*Lau gehi lau zortzi dirala daki
ta askoz gehixago bebai,
kirolerako jolaserako
prest dago Irune noiznahi.*

*Neska ilehorixa,
esan eizu egixa,*

Negozio on baten zai.

*Joko-areto baten nagusi
ez al zenduke izan nahi.*

Etxebarri

(Doinua: Iparragirre abila dela)

*Nere hiru desiuak:
osasuna, bakia
eta maitasuna.*

Jaurlaritzakuak eta basarritarak txarrixak eurenetik jaten dabela. Berriro be multia. Urtebete pasau da eta agertu dira berrix jaurlaritzakuak. Orduan basarritxarrak: "oin txarrixeri hogeiduro emoten dotseguz eta moldatzia dauke nahi daben moduan!"

Argitalpen honen laguntzaile



kutxa
zuri esker

EDURTZA Kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua



Eguneroko
menua
eta pintxoak.

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

Argazki zaharra



Futbol partidua elizaurrian

XX. Mende hasieran elizaurrian jokaturako futbol partidu garrantzitsu baten irudixa. Orduko hartan be jente asko batu zan, partidua ikustera. Herritarren alde egingo ze ben seguraski.

Jose Berruetaren argazkia

Lehiaketa berezia "Aste Santuko oporretako argazkiak"

Aste Santuko oporraldia kanpoan igaro badozu bidali zure argazkia Pil-pileanera. Argazkirik eder eta orijinalena sarituko dogu datorren alean. (Utzi zure argazkia Iratxo Goxodendan)

Soraluzeko edozein jatetxetan egiteko bi lagunendako afari bat irabazi zeinke!!

Aurreko irabazlea: Beronika Galarraga
Erantzuna: Izagirre baserria

Belarrak
Loradenda eta Belardenda
Erosketak etxera daramatzagu
Telef. 943753011
Mugik. 646439040
Gila Zubian Soraluze



LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA
Industrialdea, z/g tf: 943752150
138 Postakutxa Faxa: 943752118
SORALUZE

ARMENDIA
JATETXEA
Ezozl Auzoa, 11
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 10 02
Sukaldaritza tradizionala



HNOS. BENITO ANAIAK
ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe
Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)




GOGORTUZ Fisioterapia Zentrua




**Lepoko minak
Erreuma
Erreabilitazioa
Kirol osteko errekupeazioa
Tendinitisak
Zaintiratuak**

Ordutegia:
(goizez) 07:45etik 12:30etara
(arratsaldez) 17:00etatik 21:00etara

**Oier Oregi Unamuno
Santa Ana 7
Tel. 943750022**



Instalaciones Kalebarren S.L.



Gas instalakuntzak eta proiektuak
Kalefakzioa eta aire egokitua
Iturgintza orokorrean



Elgoibarko Institutua

San Roke, 1 Arregitorre, 2

Tel.: 943 74 80 19

E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net



ELGOIBARKO INSTITUTUA 2003-2004 ikasturtea

BATXILERGOETAKO HEZKUNTZA ESKAINTZA

NATUR eta OSASUN ZIENTZIEN BATXILERGOA

■ Zientifiko-Tekniko aukera ■ Osasun aukera

GIZA eta GIZARTE ZIENTZIEN BATXILERGOA

■ Gizarte Zientzien aukera ■ Humanitate aukera

TEKNOLOGIAREN BATXILERGOA

BATXILERGORAKO AURREMATRIKULA EPEA: maiatzaren 2tik 9ra arte

600 ikasle inguru beraien etorkizuna jorratzen · **45 ikasgai**ren eskaintza. Ikasle bakoitzak bere bidea aukera dezan · **Azpiegitura teknologiko aurreratuena**. Etorkizunerako prestakuntza ziurtatuz · **ISO 9002 kalitate ziurtagiria**. Prozedura garden eta kontrolatuak · **80 lizentziatu, ingeniari edo diplomatu**. Unibertsitate eta goi mailako zikloetarako **prestakuntza zuzena** · **Selektibitateko emaitza ezin hobekak**.

*zatoz
elgoibarko
institutura*

denok batera...

gipuzkoa aurrera!



GIPUZKOA

Autodeterminaziorako Bilgunea

www.aubilgunea.org

